

AIAKO UDALA

Iragarkia

2022ko abenduaren 22ko 197/2022 alkatetza Dekretuaren bidez Aian aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten honako oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu dira.

Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak, abenduaren 28ko 20/2021 legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoak.

1. Oinarrien xedea.

Oinarri hauen xedea da hautaketa-prozesuak arautuko dituzten arau orokorrak ezartzea, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko. Lege hori Aiako Udalean enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenaren arabera egiten ari dena.

Hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak dagozkien deialdietako oinarri espezifikoetan arautuko dira, baina gutxienez honako hauek jaso beharko dituzte:

—Deitutako plazen identifikazioa, kopurua eta lotutako lanpostuak, eta, hala badagokio, sartzeko txanda.

—Deitutako plazei lotutako lanpostuak eskuratzeko baldintzak: sartzeko titulazioa, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, baita sartzeko beste baldintza batzuk ere (hizkuntzak, informatikako ezagutzak, etab.).

—Merezimendu baloragarriak eta horien baremoa.

—Emakumeen lehentasun-klausula aplikatze-ari edo ez aplikatzeari buruzko aurreikuspena.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:

—Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

—30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzkoa.

—6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

—20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.

—7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio kidego eta eskalena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikagarri zaizkien guztian.

—Osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzupeko langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak hornitzeko eta lanbide-sustapena egiteko Araudi Orokorra.

—10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.

—86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

—297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

—39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

—40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

—3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoa.

—4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzena.

—3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

—2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Dokumentuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

—7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarrii buruzkoa.

—Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

—2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

—Oinarri arautzaile hauek.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua lehiaketa-sistemaren arabera artikulatuko da, txanda librean.

2. Parte hartzeko baldintza orokorrak.

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozeduran parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzekoa den beste estaturen bateko nazionalitatea edo nazionalitate espainiarra izatea, Europako Erkidegoa eratzeke Itunean definituta dagoen moduan.
- b) Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere Zuzenbidetik bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak Zuzenbidetik bananduta ez badaude, ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta beren kontura bizi badira (5/2015 LED, 57. artikulua).
- c) Aurretiazko eskaera egitea.
- d) Eskuratu nahi den eskalako edo lan-kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- e) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- f) Diziplina-espedientearen bidez Administrazio Publikoetako edo Autonomia Erkidegoetako Erakunde Konstituzional edo Estatutarioetako edozein zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan-kontratuko langileen kategorietara iristeko desgaiakuntza absolutu edo berezia ez izatea.
- g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.
- h) Eskatutako titulazioa izatea, edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazio hori berariazko oinarrietan adieraziko da. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

- i) Atzerrian lortutako titulazioa duten hautagaiek dagokion baliozkotzea edo homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu beharko dute.
- j) Hautaketa-prozesuaren barruan lanposturako (lan-kontratuko langileen kasuan) hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori betetzeko data dagokion hautaketa-prozesuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den eguna izango da.
- k) Herri Administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea. Hargatik eragotzi gabe kargu publikoa edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubideaz baliatzea.
- l) Deialdia egin duen Udalean ez izatea karrerako funtzionarioak edo eskala, azpieskala edo kategoria bereko lan-kontratuko langile finkorik.
- m) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berariaz onartu beharko dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta adierazitako helbururako erabiltzea.

2.1. Baldintzak betetzeko datak.

Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretan eta espezifikoetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 7.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenak izan ezik, eta horiek betetzen jarraitu plantillako lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzen diren egunean.

2.2. Baldintzak egiaztatzeko denbora eta modua.

Baldintzak egiaztatzeko denbora eta modua 7. oinarrian daude ezarrita.

3. Hautatzeko baldintza orokorrak.

Lanpostuak betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte, inola ere, baldintzak betetzea egiaztatu ez dutenek bete. Baldintza horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Deialdi bakoitzean, deialdiko plazei lotutako lanpostuei esleitutako baldintza espezifikoak zerrendatuko dira.

Lanpostu jakin batzuek espezialitate jakin bat eskuratzeko betekizuna badute, deialdien oinarri espezifikoek zehaztuko dute egiaztatze modua.

4. Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak.

Epaimahaiak ezin izango du proposatu jende gehiago sartzea, lan-kontratuko langile finko gisa deitutako plazetatik gora, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

—Izendatu edo karguaz jabetu aurretik hautatutako pertsona batzuek uko egiten badute, edo

—Hautagaiak 14. oinarrian xedatutakoaren arabera eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badute. Edo hautagaiak aurkeztutako agirietatik 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat ez dutela betetzen ondorioztatzen bada. Edo dagozkion zereginak betetzeko eska badute.

Kasu horietan, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du eta behar diren hautagaien aldeko izendapen osagarriaren proposamena egingo du. Hori guztia hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendaren puntuazio-ordenaren arabera. Horrela, hautatutzat joko dira aipatutako inguruabarren ondorioz hutsik geratu diren plazen kopuru bera duten hautagaiak.

b) Lanpostuaz jabetzeko unean lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, eta egonkortze-deialdietan plaza lortzeagatik lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, hutsik geratzen diren plazak esleituko dira. Horretarako, aurreko kasuan bezala, epaimahaiak egindako hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du.

Lanpostuaz jabetzeko unean eszedentzia-egoerara igarotzeko inguruabarrak baliozkoak izateko, izendapen-proposamena jakinarazi eta gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko da eskaera.

5. Argitalpenak eta iragarki-taula.

Hautaketa-prozesuen deialdiak dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, eta, gainera, Aiako Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.aia.eus) ere bai.

Hautaketa-prozesuan zehar, bere garapenari buruzko informazio guztia Aiako Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.aia.eus) argitaratuko da, jakinarazpen ondorioetarako.

6. Eskabideak aurkeztea.

6.1. Prozesuan onartzea.

Hautaketa-prozesuetan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- 1) eskabidea atal guztietan betetzea,
- 2) epearen barruan aurkeztea

Era berean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintza guztiak, 7.1 oinarrian elkargoko kide egiteari, espezialitateari eta euskararen ezagutzari buruz aurreikusitakoa izan ezik; azken kasu horretan, 7.8 oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko da.

6.2. Eskabideak aurkezteko era.

Eskabideak egokituko dira oinarri hauen eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuarena, udalaren webgunean (www.aia.eus) aurkitu daitekeena.

Paperezko inprimakia inprimaki elektronikoaren berdina izango da, eta edukiak eskatzen duen zehaztasunarekin bete beharko da. Nolanahi ere, hautagaiak puntuazioa kalkulatu beharko du, plazari dagozkion oinarri espezifikoetan ezarritako merezimenduen baremoa aplikatuta.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen agiririk. Nahikoa izango da hautagaiak, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, hizkuntza-eskakizuna izan ezik, eta deialdia argitaratzen den egunean alegatu eta autobaloratzen diren merezimenduak egiazkoak eta zehatzak direla. Nolanahi ere, bi kasuetan, alkatetzak edo dagokion epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu gero, edo, hala badagokio, hautagaiak alegatutako merezimenduak egiaztatu eta epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu, 7. eta 13. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Parte hartzeko baldintzak eta eskabidean alegatutako merezimenduak agiri bidez egiaztatu beharko dituzte, dagokion unean, alkatetzak edo dagokion epaimahai kalifikatzaileak horretarako berriaz eskatutako pertsonak soilik, 7. eta 13. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Oinarri hauen eta egonkortzeko hautaketa-prozesuen ondorioetarako, parte hartzeko eskabidean hautagaiak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta bertan alegatutako merezimenduak dituela adieraztea erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Euskararen informazioari buruzko eskabidearen epigrafean, hala badagokio, eskatutako hizkuntza-eskakizuna duten adieraziko da nahitaez.

6.3. *Eskabideak aurkezteko modua.*

6.3.1. Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko tokiak:

a) Erregistro elektronikoa bidez:

b) Aurrez aurreko eskaera: Aiako udaleko erregistro orokorrean bulego orduetan, goizeko 8etatik arratsaldeko 3ak arte: Gozategi Enparantza 1.- 20809 Aia.

6.3.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Udaleko Alkatetzara joko dute. Antzeman daitezkeen egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edota interesdunak eskatuta.

Hautagaiak eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean aurreikusitakora egokituko dira. Ofizioz egiaztatu edota espedientean sartuko dira, interesdunak berriaz kontrakoa adierazi ezean, honako baldintza/informazio hauek:

—Nortasun-datuak egiaztatzea.

—Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak).

—Hizkuntza-eskakizun altuena (Euskara).

—Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.

—Gidabaimenak (DGT) edo IT Txartelak (erakunde ziurtatzailea).

Aurkeztu beharreko agiriak deialdia egin duen Udalaren esku daudenean, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, betiere agiriak zein egunetan eta zein bulegotan entregatu diren adierazten bada, eta prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

6.4. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdiaren laburpena *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik hogeita (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira.

6.5. Eskabideen akatsak.

Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, hautagaia kanpoan geratuko da.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluekin bat etorriz, eskabideetan akatsen bat egonez gero, interesdunari eskatuko zaio, udaletxeko iragarki-taulan eta iragarkia jarri www.aia.eus webgunean, hamar egun balioduneko epean dokumentazio falta zuzen dezan, hautagaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenaren arabera. Era berean, jakinarazi egingo zaio, hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Hautaketa-prozesuak eskatzen duen dokumentazio hori eta gainerako dokumentazioa seigarren eta hamahirugarren oinarrietan adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira.

7. Betekizunak eta merezimenduak. Erreferentzia-datak, deskribapena, alegazioa eta egiaztatpena.

7.1. Merezimenduak betetzeko erreferentzia-datak eta parte hartzeko baldintzak.

Alegatzen diren merezimenduak eta betekizunak edukitzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

— Euskararen ezagutza, 7.8 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.

Eskabidea aurkeztean eta merezimenduen alegazioa eta auto-balorazioa egitean, hautagaiak ez du aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumenturik, 6.2 oinarrian jasotakoaren arabera.

Merezimenduak kasuan kasuko deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu aurreko egunera arte baloratuko dira.

7.2. Eskakizunak eta merezimenduak alegatzea.

Parte hartzeko baldintza orokorrak, deitutako plazei lotutako lanpostuen betekizun espezifikoak eta merezimenduak ere, eskabideak aurkezteko epean alegatu beharko dira.

7.3. Eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzea.

7.3.1. Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartzen duen Alkatetzaren ebazpenean, 9.1 oinarrian ezarritakoaren arabera auto-balorazio handiena duten hautagaiei eskatuko die 10 egun balioduneko epean, errekerimendua argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eskabidean alegatutako merezimenduak eta, hala badagokio, parte hartzeko egokitzat jotzen dituzten baldintzak agiri bidez egiazta ditzaten.

Izapide honetan ezin izango da merezimendu berririk alegatu, ezta parte hartzeko eskabidean alegatutakoak aldatu ere. Aipatutako errekerimendua eskabidean alegatutako merezimendu guztiei buruzkoa izango da.

Alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuan kasu, dagozkion erregistroei, administrazio publikoetako datuak kontsultatzeko plataformari edo ziurtagiria ematen duen erakundeari kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen aurkakotasun arrazoitua agertzen bada eta tratamendu-jarduketaren ardura duen organoak ikusten badu.

Aurkakotasun arrazoitua agertuz gero, aurkakotutako dokumentuak aurkeztu beharko dira aurkakotasunarekin batera.

7.3.2. 13. oinarrian xedatzen den bezala, hautatutako pertsonak, karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izendatu aurretik, honako merezimendu eta baldintza hauek betetzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Epaimahai kalifikatzaileak ezin izan du egiaztapenik egin, edo
- Hautagaiak egiaztapen horren aurka jo du eta organo eskudun jakitun da.

Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aldeztu aurretik aurkeztea. Kasu horretan, dokumentazioak oinarri orokor hauen 14. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

7.4. Esperientzia eta antzintasuna.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen esperientzia funtzionalki antzekoak diren plazei lotutako lanpostuak lortzeko baloratuko da.

—Deialdia egin duen Udalean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.

—Gainerako herri-administrazioetan egindako zerbitzuak egiaztatzeko agiriaren kopia simple batekin alegatu beharko dira. Dokumentu horrek, administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduari, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, eta plazari lotutako lanpostuaren taldea, kidegoa, aukera, eskala, azpieskala, mota edo kategoria eta izena zehaztu beharko ditu.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora; lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu erantzukidean uztartzea helburu duena, bai eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen lege hori).

7.5. Titulazioak.

Titulazioen alegazioa, bai betekizun gisa, bai merezimendu gisa, dagokion izapidean deklaratu egingo da, 7.2 paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Atzerriko tituluen kasuan, tituluaren kopia soila ere aurkeztu beharko da, bai eta homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria ere, kalifikazio-epaimahaiak hala eskatzen duenean.

7.6. Hizkuntzak.

Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak baino ez dira baloratuko. Errege-dekretu horrek, oinarrizko izaerarekin, hainbat ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen eta errege-dekretuko arteko baliokidetasunak ezartzen ditu, betiere horiek lotura badute deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

—Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako tituluak eta ziurtagiriak merezimenduak alegatzeko epean aurkeztu beharko dira.

—Beste erakunde batzuek emandako tituluak eta ziurtagiriak. Aitorpenaz gain, egiaztagiria kopia soila ere aurkeztu beharko da.

7.7. Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko eta borondatezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta azterketa baztertzaila gainditzen edo egiten ez duten hautagaiek hautaketa-prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten lanpostuetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Aiako Udalean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea. Dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa da eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean aplikatzen da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira salbuespen horretatik kanpo daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuei dagokienez.

Nolanahi ere, edozein euskara-titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskara-ariketa egiten den eguna izango da.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz emango dio baimena Aiako Udalarri egiaztapena egiaztatzeko edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, honako esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Hizkuntza-eskakizunen ziurtagiri eta titulu baliokideak honako hauetan zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. Eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko tituluekin eta ziurtagiriekin egiaztatzetik salbuesteko dena.

7.8. Lanpostuen betekizun espezifikoak.

Lanpostuen zerrendan betekizun espezifikoak esleituta dituen plaza bati lotutako lanpostu bat esleitu ahal izateko, hautagaiek alegazioa egin beharko

dute 8.2 oinarrian ezarritako epean, oinarri espezifikoetan horietako bakoitzerako zehazten den moduan.

8. Hautagai-zerrendak onartzea.

8.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta eskabideetako akatsak zuzentzeko izapidea amaitu ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du behin betiko onarpen, baztertze eta atzera egiteen zerrendak onartzeko, hautagaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz. Adierazpen hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaleko iragarki-taulan eta www.aia.eus webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori eskatzaile bakoitzak eskabidean betetako erantzukizunpeko adierazpeneko datuen arabera egingo da.

Zerrendetan honako hauek jasoko dira: hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, baita prozesutik kanpo geratzen diren pertsonak ez onartzeko arrazoia ere.

Gainera, zerrenda horietan argitaratuko da, behin-behinean, Autobalorazio Formularioan lortutako puntuazio osoa, hautagai bakoitzak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoaren arabera, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta daudenak) zehazteko.

8.2. Onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen Alkatetzaren ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkatetza-Lehendakariari, hilabete bateko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, baita euskara-proba egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela egiaztatzen badute eta baldin eta egun horretarako errekurtsoa ebatzi ez bada.

Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean jarritako errekurtsoa ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dute euskara-proba. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsoa ezesten bada.

8.3. Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Azkenean pertsona hautatua izango balitz, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik baldintzaren bat ez dutela ondorioztatzen bada, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu deialdian parte hartzeko baldintzaren bat betetzen ez duten hautagaiak daudela, interesdunari entzun ondoren, baztertzeko proposamena egin beharko dio organo eskudunari, eta parte hartzeko eskabidean pertsona horrek egindako zehaztasun ezak edo faltsutasunak jakinarazi beharko dizkio.

9. Hautaketa-prozedura.

9.1. Hautaketa-prozedura lehiaketa izango da, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi honetan. Txanda bakarra egongo da: librea, deialdiaren oinarri espezifikotik ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak aztertu eta baloratuko ditu Auto Balorazioko Formularioan alegatutako eta eskabide-kopuruaren arabera kreditatutako merezimenduak, bederatzigarren oinarri honetan eta deialdi bakoitzeko oinarri espezifikotik ezarritakoaren ildotik.

Alkatetzaren onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda Auto Balorazioaren Formularioan lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuko da, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta dauden guztiak) zehazteko, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikotik ezarritakoaren arabera eta kategoria bakoitzerako deitutako plazen arabera, honako eskala honen arabera:

—Deitutako 5 plaza edo gutxiago: deitutako plazak bider 5.

Aurrekoari kalte egin gabe, hautagai-zerrenda bideragarririk ez badago, Alkatetzaren onarpen, bazterketa eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda erabiltzea erabakitzen bada, jarduketa hori bertan agertzen den puntuazio-ordena zorrotza errespetatuz egingo da.

Eskaera-orrietan jasotako merezimenduak neurtzeko eskalak barnean hartuko ditu hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten pertsonak, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa den lanpostuetan. Baina kasuan kasuko euskara-azterketa egiteko izena eman badute eta azterketa gaindituz egokituko litzaiekeen puntuazioa adierazita. Derrigortasunik gabeko plazen kasuan ere egokituko litzaiekeen puntuazioa emango zaio.

Nolanahi ere, alegatzen eta aurkezten diren merezimenduak zenbatzeko erreferentziatzeko azken data eskabideak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu aurreko egunekoa izango da, 7.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenarekin.

9.2. Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzailerak izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanposturen bat duten lanpostuen kasuan, salbu eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badute, eta borondatezkoa eta ez baztertzailerak gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta

